

Apolinaria Egozkue Eugi
Esteribar, Nafarroa (1895)

Aurkibidea

Biografia

Esteribarko Inbuluzketa herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

EST-007

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1981-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

EST-013

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo

- **Data:** 1981-01-01
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Ijito, saltzaile eta "kinkaileroak"

- **Erref:** EST-007/001
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Inguruetara etortzen ziren ijito eta kinkila-saltzaileen inguruko kontuak.</p>
<p>

Transkripzioa

- Xitoak zer dira?
- Je! gitanos... gitanos; pero no se vienen ahora...
- Ez? eta denbora batean bai?
- Ah, orduen bai! orduen etorri.
- Eta nola etortzen ziren?
- Nola etortzen tzire?
- Karroakin edo nola?
- Aja! al tzuten bezala... bai; eltzeak alanbratzera ta, etortzen tzire... paragosak konpontzera ta, klaro! yan biar tzute? ta yatekotan? matekotan ogie ta... urdei pusk et ematekotan? lan oyek iten tzuzte.
- Orduan lana egiten zuten, lana, gauzak konponduz eta horren orde z jateko zerbait ematen zieten...
- Bai, klaro, klaro...
- Eta egoten ziren hemen egun batzuk?
- Eeez! ez-ez.
- Egunean etorri eta egunean joan?
- Segidoan, bai.
- Joaten ziren ongi beztiturik ala gaizki?
- Ez, ongi aski ibiltzen tzire, ongi aski ibiltzen tzire. Biña orai, orai majoao, orai... igual dabilte... kamioneki? Oraë? geio? aunque sea paragosak konpontzen zuzte; orai ja ez!
- Paragosak?
- Paragosak eta, konpontzen zuzte, zitoak; orai?
- Paragosak dira 'paraguas'?
- Paraguas.
- Eta zer beste konpontzen zuten?
- Eltzëak! kazolak, eta... oiek; orduen... denak loiezkoak baitzire!
- Eta familiak etortzen ziren?
- Bai.
- Familia pare bat edo? bere karroan edo...?
- Bai, emendik karreterara joaten tzire, emengo lana...
- Astoekin eta?
- Je!... orai autoakin!
- Eta lehen?
- Je! len? saski betekin o zaku eteki.
- Zaku batekin?

- Igual.
 - Eta saltzailerik etortzen zen?
 - Zer da ori?
 - Saltzaile, saltzeko...
 - Oiek saltzeko? ez-ez-ez...
 - Baina beste batzuk bai...
 - Bah! ez-ez-ez-ez, ezta, ezta...
 - Hona ez zen inor etortzen?
 - Onara ezta-ezta txardin bet ere ezta tortzen o... ori... ogi saltzera.
 - Txardin?
 - Bueno, nola den... ezta, emen bakotxa bera, al duen bezala...
 - Erosten ditu...
 - Erosteuntu? biña... eztire tortzen.
 - Eta 'txardin', zer da?
 - Sardinak!
 - Ah! sardina, txardin, bai-bai-bai... Eta kinkalleroak eta?
 - Ez, batre... batre, batre; ogieiki(n)... panaderoa.
 - Hori bai?
 - Ori bai.
 - Hori ekartzen dute...
 - Astian, iru aldiz? tortzen da.
 - Nondik, Zubiritik?
 - Zubirikoa da bai, biña... Billabatik kartzen tu; bera Billabakoa da, ta... Billabatik o Iruñatik? kartzen tu. Joaten da... Iruñereño, egunero-egunero ezta tortzen ez, astian iru aldiz o tortzen da. Miña? sukeldian bear diren gauze guziek-ta kartzen tu, ardoa ta... edari oietaik? denetaik kartzen t(t)u. Bide etortzen dire: bat, Zubiriköa, Caballeroa... errate omen tzena, ure, ta bertzia... Billabakoa.

2. Kantu pare baten apurrak

- **Erref:** EST-007/002
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:03:41. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ume-kanta pare baten zatiak abesten ditu.</p>

Transkripzioa

-

... ieran (?) tzubitik erori

Erori bazinan erori

Ezta emen yagokoik ageri

- Ezta hemen yagoko?

- Ageri, pues que no ha aparecido más.

- Eta bertzea, nola zen? 'Bolon bat...'

- Gure aurr onen aurr ona

Balio baitu Baiona

Baiona dirutara da baño

Ez au bezalako aurr ona

... ttittittin, tararan. Te da una zurra y... a dormir.

3. Inbuluzketan San Juanetako ohiturak galdurik omen

- **Erref:** EST-013/001
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan egunaren inguruko ohitura handirik ez omen zen Inbuluzketan. Ogi bedeinkatua. Esaera batzuk aipatzen ditu.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com